



"Toque de queda", de Iñaki Núñez. El cine de las nacionalidades debe defender su personalidad y reflejar la realidad social.

(Foto EGIN)

El Valle de Aosta, al Norte de Italia, limita con Francia y Suiza. Tiene cien mil habitantes que, en su mayoría, vive del turismo que acude atraído por los Alpes. Desde que se formó la unidad de Italia fue incluida en ella y hoy constituye una región que, como el Friuli, el Tirol, Sicilia y Cerdeña, posee un Estatuto especial. Si legal y oficialmente es francés e italiano, el Valle de Aosta se está italianizando, ya que administrativamente depende de Italia. Tanto la administración pública, como los medios de información y la misma Iglesia desarrollan un papel italianizante. Los italianos juegan la baza de la televisión y la educación y el hecho de que el turismo permite mantener una economía saneada;

hay parte de la población que acepta la italianización. Ante ellos están los que se inclinan al lado francés, que se oponen a las vías de italianización. Hay, por fin, una tercera alternativa política, minoritaria aún, la harpetana, que no aceptan la actual situación político-administrativa. Para ellos el Valle de Aosta es tan sólo una parte de un pueblo más grande, que tiene idioma-franco-provenzal y que, además del Valle, comprende partes de la provincia de Torino, de Francia y de Suiza. Krudwig ha jugado un papel importante en la concienciación harpetana. En este valle se ha desarrollado la Semana de Cine de las Minorías Etnicas.

Vall d'Aosta: Zinema eta telebistari buruz mintegia

Herri ezeztatuen baieztapena

Aostako bailara Italiaren Ipar-Mendebalean kokatzen da, Frantzia eta Suitza mugakiditu. Hegoaldean Torino-noko Probintzia dago.

Beste gora bailara luze bat abiatzen da, Mont Blanc-en oinetaraino iristen dena. Bailara nagusi honi, ezker-ekubik, beste baitara txikiagoak luzatzen zaizkio, hainbat beso bezala. Eskualdearen hiriburua Aosta da, Alpetako mendigailu nagusiaren oinetan.

100.000 biztanle inguru ditu eskualdeak. Gehienbat turismo motik bizi da jendea.

Administrazio politikoak, Italiako Estatuaren batasuna egin zenetik, Italiaren lurraldetan egon da. Gar irregon Italiako eskualde bereziakoa da: hau da, Tyrol-ekin, Friul-ekin, Sicilia-rekin eta Sardinia-rekin batera, Estatutu berezia dutenen artekoa da Vall d'Aosta ere. Legez eta ofizialki frantsesa eta italiar, biak dira parekoak. Baina administrazioz Italiaren menpean dagoelako eta, italiar gogaitzen ari da erabat, herri nagusietan batez ere. Italianizazioaren politika daramate administrazio publikoak; komunikabide sozialek eta Elizak berak.

Hala ere, hiru joera politiko nagusi burrukatzen dira, gutxiengo etniko eta hizkuntzakoari dagokienez. Italiako administrazioak italiararen alde jokatzen du, bere ahalbide guztiekin: bereziki telebistaren eta hezkuntzaren bitartez. Italiaren administrazio pean, Val d'Aosta nahiko ondo bizi da, ekonomia aldeak: Estatuak turismoa promozionatzen duelako eta bere kutxetatik laguntza berezia ematen diolako. Eskualde nahiko aberatsa da Val d'Aosta. Horregatik, oraingo egoera politikoa eta administratiboa nahiko ondo dator; eta zenbait jende egoera horren aldeko da.

Bigarren joera nagusi bat frantsesaren aldekoa da. Italiaren barruan, gutxiengo etniko bezala. Bere nortasun kulturazkoa, historikoa eta etnikoa frantsesa zainduz eta indartzu gorde eta areagotu nahi du. Horregatik, Italiako Estatuaren politika kulturazkoaren eta hizkuntzazkoaren kontra bu-

rrukatzen dira bigarren joera hau defendatzen dutenak.

Hirugarren joera, politika mailan oraindik indar handirik gabea, harpetanista da. Hau da, Val d'Aostaren oraingo egoera politiko-administratiboa, erabat ukatzen dute; ez dute onartzen Italiaren eskualde bezala, beren autonomia eta guzti ere. Izan ere, harpetanistentzat, Vall d'Aosta Herri handi baten parte bat besterik ez da: hizkuntza, franco-probentzala du Herri onek, eta lurraldez, berriz, Frantziako, Suizako eta Torino probintziako parteak ere biltzen ditu, Val d'Aostaz gailera. Krudwig-ek eragin handia izan du, Harpetaniari buruz jabeteko mugimendu horretan. Harpetariaren ehen gramatika 1976an ateratzen da.

Gutxiengo etniko eta nazionalen zinema-astea

Gutxiengo etniko eta nazionalen aldeko mugimendua da CIEMEN. Europako beste hainbat nazio eta gutxiengo etnikotan bezala, Val d'Aostan ere badu bere taldea CIEMENek.

Urtean zehar bere ekintzarik nagusia Nazio eta Gutxiengo horietako zine-topaketak antolatzea aukeratu du, hain zuzen ere. Iaz antolatut zuten lehen aldiz, eta aurten bigarren aldiz.

St. Vicent herrian ospatu dira aurtengo topaketak. Herri txiki-polita da St. Vincent. Baina bere txikia eta politen, Vall d'Aosta eskualdearen turismo-erakarle eta zentru finantzario nagusien artekoa da, bereziki bere Casinoaren bitartez. Italiako Casinorik nagusia eta erakarleena da, seguruenik, St. Vincent-ekoa. Eskualdearen gobernu autonomoaren presopostuaren ehundik 40 Casino horrek ematen du.

Casinoarekin bat egiten du hotel handi batek: hotel honetan ospatu dira aurtengo zinema-topaketak. Casinora eta hotela pribatuak izanik ere, Val d'Aostako administrazioarekin zenikusi handia dute; eta bi haiek administratzen dituen sozietateak bete buruaren prestigio-ekintza bezala hartu-

du aurtengo zinema-topaketak bertan. Europako hainbat Herri "ezeztatuak" aurkeztu zituzten bere filmak: Catalunya, Galizia, Occitaniak, Korsikak, Britaniak, Friul-ek, Vall d'Aostak berak, etab.rek.

Euskal Herria lehen aldiz ageritu da bere filmekin, eta parte berezia izan du. Hiru "kortometraia" eman dira: "Ikastolak", "Gemika" (Olearena) eta "Gemika" (Agirrearena). Oso gogoz ikusi zuten eta interes berezia sortu zuten, beren balio zinematografikoaz gainera, beren gaiarengatik. Egia esan, euskal presentzia inprobisatuegia izan zen aurten; eta hurrengo urtetan koalifikatuago izango dela uste du Horretarako lanean hasiak dira, dagoeneko, euskal zinegileak.

Idazkaritza berria

Aurtengo astealdia zinema-topaketa izan da, bai; baina neurri batetaino bakarrik. Eta, antolatuzaileek hala nahi zutelako, filmaerakusketak baino garrantzi handiagoa izan zuten zinegileen arteko mintegia. Izan ere, lehenengo urteko esperientzia baliagarriaren ondoren, Vall d'Aostako antolatuzaileek geroko urtetako jarraipenaren oinarriak argitu eta finkatu nahi zituzten aur-

tengo astealdian.

Herri ezeztatuak hainbat zinegilek hartu zuten parte. Zorritzarrez Euskal Herrikoarik ez zen jartean; baina, nahiz eta zinegile ez izan eta zinemaren alorrean ere bereziki ez ibili, St. Vicent-en izan ziren bi euskaldunek beren parte nabarmena izan zuten, eta hango asmo eta erabakien berri hemengo zinegileei jakin ezatea beren egitekotzat hartu zuten.

Aurtengo "Topaketa-mintegiaren" fruiturik nagusia Idazkaritza iraunkor bat sortzea izan da. Orain arte Vall d'Aostako lagunek beren aldeki CIEMENen babesean-eraman baldin badute, ekintzaren antolatuaren ardura, hementik aurrera Idazkaritza berri honen esku geldituko da.

Nazioartekoa izango da Idazkaritza: hau da, Herri eta Nazio eta Gutxiengo "ezeztatuak" ordezkariak osatuko dute; eta irekia izango da. Hala ere, bere zentrua, Vall d'Aostan izango du. Eta hementik aurrera ere, oraingo behintzat, Eskualdeko Gobernu autonomoaren esku egongo da Idazkaritzaren eta urteroko Astealdiaren finantzaketa.

Hiru egiteko nagusi ditu Idazkaritzak: a) Gutxiengo eta Herri "ezeztatuak", zinema-

ren eta Telebistaren alorretan, aurrera eramaten diren ekintzaren berri elkarki ematea; b) ahal den eta behar den neurrian, elkarki laguntza teknikoak eskaintzen; c) urteroko zinema-topaketak antolatu eta eratea.

Idazkaritza hau, lege eta instituzio mailan: CIEMENen barruan kontatuko da.

Zen da gutxiengo etniko eta nazionalen zinema? Hauze zen etengabe aidean zegoen galdera eta argitu beharreko galdera. Azkenik erabakitzea iritzi ziren partehartzaileak. Hiru baldintza bete behar ditu zinemak, gutxiengo etniko-nazionalen zinema-produkziozat hartuko baldin bada eta Vall d'Aostako urteroko zinema-topaketetan parte hartuko baldin bada:

a) Nazionalitate edo gutxiengo, etnikoaren beraren hizkuntza erabiliko da zinemaren

b) Nazionalitatearen edo gutxiengo etnikoaren nortasuna baieztatzea eta horren alde bururkatzea jo behar du zinemak.

c) Baliabide teknikoak eta ekonomikoak ematen duten neurrian zinemak kalitate eta koherentzi- neurri eta maila batzu beharrezkoak ditu.

Paulo AGIRREBALTATEGI



El Seminario celebrado en Val d'Aosta aboga por una cinematografía que utilice la lengua propia de la etnia.

(Foto Louber)